ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko ekainaren 14a, astelehena • 65 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko martxoaren 31ko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez dirulaguntzen deialdi publikoa egiten baita amiantoa kentzearen kostu ekonomikoak ordaintzeko

DDBN(Identif.): 567981

Bat etorriz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai:

(https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/567981).

(http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index).

Lehenengoa. Onuradunak

Onuradun izango dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

1. Udalerrian erroldatuta egotea eta obrak Iruña Okako udalerrian gauzatzea abian den urtean zehar.

2. Eskatzaileak egunean izan behar ditu Iruña Okako Udalarekiko zerga betebeharrak.

3. Iruña Okako Udalak beretzat gordetzen du obrak hirigintza legedia betez gauzatu ote diren egiaztatzeko eskubidea.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauen xedea da irizpideak ezartzea eta prozedura bat arautzea dirulaguntzak emateko, udalerrian obrak egiten direnean eta amiantoaren ordez beste material batzuk jarri behar direnean amiantoa enpresa baimenduen bidez kendu beharrak dakartzan kostu ekonomikoak ordaintzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2021eko maiatzaren 31n eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa ezingo da inolaz ere 6.000 euro baino gehiago izan; kopuru hori 1720.434.000 partidatik ordainduko da.

Jardunaren kostuaren ehuneko 50 lagunduko da diruz, baina eman beharreko zenbatekoa ez da izango inola ere 1.000 euro baino gehiago.

Dirulaguntzak esleituko dira eskabideka aurkezteko hurrenkera kronologikoaren arabera, harik eta aurreikusitako aurrekontu partida amaitu arte.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurtengo abenduaren 31 arte.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

— Eskabide orria; dirulaguntza zer obratarako den adierazi behar da.

— Eskatzailearen NANaren fotokopia.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Hondakinak kudeatzen dituen enpresak jaulkitako faktura eta ordaindu izanaren frogagiriak.

— Hondakinen kudeaketaren enpresa egiaztatuaren ziurtagiria.

Eskabideak Iruña Okako Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako eran.

Aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazi diren betebeharrak, udal honek interesdunei eskatuko die aurkitutako akatsak 10 eguneko epean zuzentzeko; horrela egin ezean, eskabidea artxibatu egingo da eta beren eskaeran atzera egin dutela iritziko da, beste izapiderik gabe.

Iruña Oka, 2021eko ekainaren 3a

Alkate-lehendakaria
MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2021.06.14 05:49:51 Z